



TOMAS GARBIZU

Lezoko Udalaren

Musika Eskola

MATRIKULAZIO ARAUDIA

TOMAS GARBIZU LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA
ARRETXENE KALEA, 3 - Tel.: 943529999
Helbide elektronikoa: tgarbizume@lezo.net
20100 Lezo (Gipuzkoa)

1. MATRIKULAZIO-ARAUDIA (B.A. IV. TITULUA. MATRIKULA EGITEA ETA IKASLEAK ONARTZEA)

Bi prozesu desberdin erabiliko ditu Eskolak hurrengo ikasturterako ikasleen behin-behineko matrikulazioa formalizatzeko: bata, Eskolako ikasle ofizialak diren eta espezialitate bereko ikasketekin jarraituko duten ikasleak matrikulatzeko; eta bestea, berriz, onartutako ikasle berriak matrikulatzeko. Atxikitako ikasleak ere izango dira kontuan. (Tratamendu berezia dagokion araudian.)

I. KAPITULUA. MATRIKULAZIO-PROZESUEN EGUTEGIA

Honela zehaztuko da plazen amaierako eskaintza:

1. artikulua

1.- Martxoa (Eskola Kontseilua)

Hurrengo ikasturterako plaza hutsen gutxi gorabeherako eskaintza aurkeztea eta onartzea.

2.- Apirila (Irakasleen 4. Klaustroa)

Ikasle ofizialentzako hutsik dauden plazen eskaintza aurkeztea, batez ere 1. mailako 3. kurtsoa egin dutenentzat eta itxarote-zerrendan dauden ikasle ofizialentzat (5. artikulua).

3.- Maiatzeko 1. astea

Ikasle ofizialei aurre-inskripzio- matrikula inprimakia posta elektronikoz bidaltzea.

4.- Maiatzeko 2. eta 3. asteak

4.1. Datuak aldatzeko eta baja akademikoak jakinarazteko epea.

4.2. Posta bidez informazio pertsonalizatua bidaltzea Lezon erroldatuta dauden eta inoiz Eskolan matrikulatuta egon ez diren 4 eta 7 urte arteko umeei, gure zerbitzua eskaintzeko.

4.3. Ikasle berrientzako matrikulazio-kanpaina zabaltzea (1. deialdia).

5.- Maiatzeko 4. astea

5.1. 1. mailako (3. kurtsoa) eta itxaron-zerrendako ikasle ofizialen eskaera instrumentalaren azterketa (5. artikulua)

Lehen laneguna: Ikasle ofizialen behin-behineko zerrendak eta itxaron-zerrendak argitaratzea, instrumentuaren aukeren arabera.

Bigarren laneguna: Erreklamazioak formalizatzeko eta akatsak zuzentzeko eguna.

Hirugarren laneguna: Behin betiko zerrendak eta behin betiko itxarote-zerrenda argitaratzea.

5.2. Egokitutako musika tresnarekin ados egonez gero, ondorio guztietarako balio izango du aurrematrikula-orriak.

6.- Ekaineko 1. astea

6.1. Lehen aldiz Eskolan sartzen diren ikasleentzako eskaintza aztertzea eta argitaratzea. Plazen eskaintzaren emaitza Musika Eskolako iragarki-taulan eta webgunean (lezo.eus) argitaratuko da.

6.2. Eskolan lehen aldiz sartzen diren ikasleentzako aurreinskripzio-matrikula.

6.3. 5.1 eta 5.2 atalak formalizatu ondoren, aztertu eta Lezon bizi ez diren ikasleei erantzungo zaie, eta onartu egingo dira, baldin eta plaza hutsak badaude.

7.- Ekaineko 2. astea

7.1. Lehen aldiz instrumentua aukeratuko duten ikasle ofizialek zenbat kreditu dituzten kalkulatzeko.

7.2. Aurrematrikula/Matrikula eginda duten ikasle berriei plazak esleitzea, espezialitateen arabera.

VII. **Lehen laneguna:** ikasle berrien behin-behineko zerrendak, onartuen zerrendak eta itxarote-zerrenda argitaratzea, espezialitateen arabera.

VII. **Bigarren laneguna:** erreklamazioak egitea eta akatsak zuzentzea.

VII. **Hirugarren laneguna:** onartuen behin betiko zerrendak eta behin betiko itxarote-zerrenda argitaratzea.

Egokitutako espezialitatearekin ados egonez gero, ondorio guztietarako balio izango du aurrematrikula-/matrikula-orriak.

8.- Ekaineko 3. astea

8.1. **Bekak** ebaztea, plaza huts posibleak **aztertzea**, eta, ondorioz, aukera izanez gero, itxarote-zerrendako ikasleei plaza hutsak **egokitzea**.

Aste horretan konponduko dira gorabehera guztiak.

9.- Uztaileko 4. lanegunetik aurrera

Ikasle ofizialei eta berriei alta ematea, 1. banku-igorpenera egitea, eta kobratu izana baieztatzea.

10.- Abuztuko 4. astea

Ikasle berrientzako matrikulazio-kanpaina zabaltzea (2. deialdia).

11.- Iraileko 1. astea

Ikasle berrientzako bigarren matrikulazio-epea zabaltzea.

12.- Iraileko 2. astea

12.1. Plaza hutsak egonez gero, aurrematrikula/matrikula irailean egin duten ikasle berriei plazak esleitzea, espezialitateen arabera.

Iraileko 2. astea, 1. laneguna: ikasle berrien behin-behineko zerrendak, onartuen zerrendak eta itxarote-zerrenda argitaratzea, espezialitateen arabera.

Iraileko 2. astea, 2. laneguna: erreklamazioak egitea eta akatsak zuzentzea.

Iraileko 2. astea, 3. laneguna: onartuen behin betiko zerrendak eta behin betiko itxarote-zerrenda argitaratzea.

12.2. Egokitutako espezialitatearekin ados egonez gero, ondorio guztietarako balio izango du aurrematrikula-orriak.

12.3. Behin 12.1 eta 12.2 zenbakiak formalizatuz gero, Lezon bizi ez direnen orriak aztertuko dira, eta, plaza hutsak egonez gero, onartu egingo dira.

13.- Urriko 1. astea

Lehenengo (ekaineko) deialdiaren ondoren onartutako ikasleei alta ematea, 1. banku-igorpenera egitea, eta kobratu izana baieztatzea.

II. KAPITULUA. IKASLE OFIZIALEN MATRIKULAZIOA

2. artikulua

Ikasle ofizialei (zaharrei) dagokienez, barne-prozesua izango da.

3. artikulua

Ikasle hauek **ezin** izango dute berritu matrikula:

1. Aurreko ikasturteetako tasak osorik ordaindu **ez** dituztenek.

2. Jasotako irakaskuntzak batere aprobetxatzen ez dituztenek eta interesik ez dutela erakusten dutenek.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, matrikula ez berritzeko nahikoa izango da **5** urteko epean II. maila **ez** gainditzea, edo **7** urteko epean III. maila **ez** gainditzea, edo ikasturteko ordu guztien % 15 justifikatu gabe huts egitea.

I. ATALA

4. artikulua

- Musika Eskolak emailez bidaliko du aurreinskripzio-matrikula inprimakia maiatzaren 1. astean, eta automatikoki baieztatuko du plaza erreserbatu dela. Ondoren, ikasleek maiatzaren 2. eta 3. asteak izango dituzte egokitzen dituzten aldaketak egiteko.
- Datu hauek agertuko dira matrikula-orrian: datu pertsonalak, bankuko datuak, hautatutako aukera, egiten ari den espezialitatea, aukera ditzakeen irakasgai osagarriak (aukera lehenetsi gisa), ordaindu beharreko zenbatekoa, eta ordainketa egiteko epeak.
- Uztailean ematen zaio alta ikasle ofizialen matrikulari; 1. banku-igorpena egiten da, eta kobratu izana baieztatu.
- Espezialitate nagusian (instrumentala) aritzeko **12** urteko gehienezko mugara iristen diren eta Talde Instrumentala / Talde Korala irakasgai izena emanda **EZ** dauden ikasleak itxarote-zerrendara pasatuko dira («Instrumentua esleituta duten itxarote-zerrendako ikasle ofizialak»), dagokion tokira. Musika-ikasketekin jarraitzeko aukera ikasturte horretarako onartutako «Eskaintzaren prozedura» dokumentuan zehaztuko da.

II. ATALA

Jarraian adierazten den bezala matrikulatuko dira lehen aldiz instrumentua aukeratzen duten Musika Eskolako ikasle **ofizialak** (1. MAILA - 3. KURTSOA) eta 5. artikuluko 9.parrafoan aipatzen diren ikasleak.

5. artikulua

- Musika-eskolak emailez bidaliko du matrikula-inprimakia maiatzaren 1. astean, eta automatikoki baieztatuko du plaza erreserbatu dela. Ondoren, ikasleek maiatzaren 4. astera arteko epea izango dute egoki irizitako aldaketak egiteko.
- Orri hori matrikula-orriaren antzekoa izango da, baina aldea da ez dela bete behar espezialitatearen atala instrumentua baieztatu arte.
- Ikasle ofizialen jarraipena egiaztatu ondoren, hutsik dauden plazak eskainiko dira.
- Ikasturte horretako «Eskaintzaren prozedura» dokumentuan zehaztuko da plaza hutsen eskaintza.
 - Musika Eskolako iragarki-taulan eta webgunean (lezo.eus) argitaratuko da dauden plazen eskaintza, ikasle ofizialak matrikulatzeko epea amaitu eta hurrengo lanegunean.
 - Ondoren, plaza hutsak **esleituko** dira.

Lehentasan-ordena ezarriko da ikasleen artean, prozesu honen arabera:

- 1. Instrumentua esleitu gabe duten itxarote-zerrendako ikasle ofizialak** (1. MAILA – 3. KURTSOA) eta 5. artikuluko 9.parrafoan zenbakietan aipatzen diren ikasleak.
- 2. Instrumentua esleituta duten itxarote-zerrendako ikasle ofizialak**, (IV. maila, > 12 urte instrumentuarekin, Talde Instrumentala gabe).
- 3. Kreditu kopurua.** Orain arte lortutakoei uneko ikasturtean matrikulatutakoak gehitu behar zaizkie, emaitza edozein dela ere; ez zaie halakorik aplikatuko 5. artikuluko 9.2 eta 9.3 zenbakietan aipatzen diren ikasleei.

Akta akademikoen arabera (entrega-data: ekaineko 3. astea), kreditu kopurua ez badator bat esleipen-prozesuan baloratutakoekin, une horretan izango lukeen tokira igaroko da ikaslea.

4.Plazen banaketa honela egingo da:

- 4.a** Kreditu gehien dituzten ikasleek lehentasuna izango dute.
 - 4.b** Kreditu kopuru berdina dutenen artean, Lezon errolatutako ikasleek izango dute lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez erabakiko da.
- 5.- Plazak modu korrelatiboan esleituko dira, aurreko puntutik ateratzen den zerrendari ikasleak «Instrumentua aukeratzea» eranskinean lehenesten dituen espezialitateen ordena aplikatuta, plaza huts guztiak bete arte.
- 6.- Lehentasunez aukeratutako espezialitate batean plaza lortzen duten ikasleak gainerako espezialitateen zerrendetatik kenduko dira.

7.- Instrumentua esleitu ondoren, eta bajaren bat gertatzen bada, ikasleek «Kredituak» zerrendan duten ordena korrelatiboari jarraikiz beteko dira plaza hutsak, «Instrumentua aukeratzea» orrian jarritako lehentasunak kontuan hartuta.

8.- Haietako batean plaza lortuz gero, EZIN izango zaio uko egin; uko eginez gero, «Instrumentua aukeratzea» zerrendako azken tokira igaroko da ikaslea.

9.- Plazak esleitu ondoren ikasleari jakinarazten bazaio ez duela plazarik ezein instrumentutan, Eskolak aukera hauek proposatuko dizkio:

9.1. Plazak badituen beste instrumentu batekin hastea (1 kreditu), edo instrumentuen tailerren batean sartzea (0,5 kreditu). Hori eginez gero, itxarote-zerrendan sartuko da ikaslea, kredituak zenbatuko zaizkio, eta hasieran eskatutako instrumentuetako bat aukeratu ahal izango du, lehentasunen ordena errespetatuz.

9.2. Instrumenturik ez hartzea eta gainerako irakasgai osagarriak hurrengo ikasturteetan egitea. Hori eginez gero, ikasturte horretan lehen aldiz instrumentua aukera dezaketen ikasleen baldintza berberetan egongo da ikaslea instrumentuaren itxarote-zerrendan. Kasu honetan, gehienezko kreditu kopurua 4koa izango da. Bere garaian lehentasunezkoztat jotako instrumentu berbera aukeratu beharko da, lehentasunen ordena errespetatuz.

9.3. Ikasturtean zehar instrumentuan baja ematen duten eta beste instrumentu batekin hasi nahi duten ikasleek bi ikasturtez egon behar dute ikasle ofizial gisa instrumentuaren itxarote-zerrendan. Tarte horren ondoren, instrumentua lehen aldiz aukeratu behar duten ikasleen baldintza berberetan (4 kreditu) hartuko dute parte instrumentua aukeratzeko prozesuan. Bere garaian itxarote-zerrendan sartzeko aukeratu zen instrumentu berbera aukeratu beharko da.

- «Matrikulazio-prozesuen egutegia» atalean adierazitako guztia egin ondoren (plazak esleitzea, behin-behineko zerrendak eta itxarote-zerrenda argitaratzea, erreklamazioak egitea eta akatsak zuzentzea, eta, maiatzeko laugarren astean, behin betiko zerrendak eta behin betiko itxarote-zerrenda argitaratzea), "Matrikulazio-prozesuen egutegia" atalean jasotzen den bezala, prozesua amaitutzat emango da.

- Egokitutako instrumentuarekin ados egonez gero, ondorio guztietarako balio izango du.

- Ekaineko 3. astean berretsiko dira kredituak, baita gorabehera guztiak argitu ere.

- Ikasle ofizialen matrikulari, uztaillean emango zaio alta, lehenengo banku-igorpenaren bidez eta, ondoren, kobratu izana baieztatuz.

- Edozein zalantza, zuzendariaren irizpideen arabera ebatziko da.

III. KAPITULUA. IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Musika Eskolan sartu nahi duten ikasle berriak aurrematrikulatzeko prozedura honi jarraituko zaio:

- Ikasle ofizialek matrikula-orria bete eta idazkaritzan entregatu ondoren, ikasle berrientzako plaza hutsak eskainiko dira.

6. artikulua

- Eskolak ohiko hedabideen bidez (egunkariak, kartelak eta webgunea) ematen du ikasturte bakoitzean eskaintzen dituen espezialitateen eta «Aurrematrikula-orria» betetzeko ezarritako epeen berri. **Maiatzeko 2. astean** (1. deialdia) eta **abuztuko 4. astean** (2. deialdia) ematen da informazio hori.

- Salbuespen gisa, maiatzeko 2. astean, posta bidez informazio pertsonalizatua bidaliko zaie Lezon erroldatuta dauden eta inoiz Eskolan matrikulatuta egon ez diren 4 eta 7 urte arteko umeei, gure zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzaren ezaugarriak azaltzeaz gain, «Aurrematrikula-orria» ere ekarriko du informazio horrek.

- Orri hori ikasle ofizialen matrikula-orriaren antzekoa izango da, baina ikasleari buruzko datuen eremuak ez dira beteta egongo.

- Gero, «Aurrematrikula/Matrikula» egingo da (**maiatzeko 4. astea** —1. deialdia— eta **iraileko 1. astea** —2. deialdia—).

- Gutxi gorabeherako plaza kopuruari ikasle ofizialen artean esleitutakoak kenduta ateratzen diren plaza hutsak eskainiko dira. Musika Eskolako iragarki-taulan eta webgunean (www.lezo.eus) argitaratuko da eskainiko den plaza kopurua, maiatzeko 4. astean.

- Ondoren, plaza hutsak **esleituko** dira.

1. Eskaintako plazek baino eskari txikiagoa edo bera duten plazak automatikoki esleituko dira.
2. Plazak baino eskaera gehiago dituzten maila, kurtso eta irakasgaietan, lehentasunen prozesu honetatik ateratako ordenaren arabera aplikatuko da:

- Lezon errolatutako ikasleak

Tomas Garbizu Musika Eskolan tailerren bat egin duten ikasleek izango dute lehentasuna (0,5 kreditu ikasturteko).

Itxarote-zerrendako ikasleak, Lezon errolatutakoak, baldin eta **Eskolaren Heziketa Proiektuan** jasotako baldintzak betetzen badituzte eta ikasturte berrirako aurrematrikula epe barruan egin badute.

Zozketa. Epe barruan matrikulatutako ikasleen artean zozketa bidez esleituko dira dagozkien plaza hutsak.

- Lezon errolatuta ez dauden ikasleak. Lezon errolatuta dauden ikasleei aplikatuko zaizkien irizpide berberak aplikatuko dira.

Zuzendariak argituko ditu zalantzak.

- «**Matrikulazio-prozesuen egutegia**» kapituluan adierazitako guztia egin ondoren (plazak esleitzea, behin-behineko zerrendak eta itxarote-zerrenda argitaratzea, erreklamazioak egitea eta akatsak zuzentzea, eta, ekaineko bigarren astean, behin betiko zerrendak eta behin betiko itxarote-zerrenda argitaratzea), Musika Eskolan hasiko diren ikasle berriak matrikulatuko dira.

- Egokitutako espezialitatearekin ados egonez gero, ondorio guztietarako balio izango du aurrematrikula-/matrikula-orriak, baldin eta kontu korrontearen titularrak sinatu badu.

- Aurrematrikula/Matrikula eginez gero, plaza gordeko da.

- Instrumentuaren plaza esleitu ondoren, ikasleak ezin izango du beste espezialitate bat aukeratu; bestela, itxarote-zerrendako azken tokira igaroko da.

- Uztailean emango zaio alta ikasle berrien matrikulari; 1. banku-igorpenean egingo da, eta kobratu izana baieztatu.

Zuzendariak argituko ditu zalantzak.

7. artikulua

Matrikulazio-epea amaitutakoan (2. deialdia, irailekoa) plaza hutsak bete gabe geratzen badira, plaza erabilgarri bihurtu ahal izango dira, alderdi hauek kontuan hartuta: Eskolaren bideragarritasun ekonomikoa, diziplina instrumental batek eskaintzako 3 plaza baino gehiago ez hartzea, eta sailkapen taldearen arabera (B, E, F) espezialitate batek dagokion ikasle kopurua ez gainditzea.

Plaza horiek «Instrumentua esleituta» dutenen itxarote-zerrenda (IV. maila, > 12 urte instrumentuarekin, Talde Instrumentala gabe) osatzen duten eta dagozkion esleipen-prozesuan plaza lortu ezin izan duten ikasle ofizialei zuzenduta egongo dira.

Espezialitate instrumentalaren arabera esleituko dira plazak, ordena korrelatiboan, eta ikasle kopuru gehien duen espezialitateetik hasita. Kreditu kopuru handiena duen ikasleak izango du lehentasuna. Berdinketa badago, zozketa egingo da.

8. artikulua

Plaza lortu duen ikasleak musika-ezagutzak baldin baditu, proba bat egingo du landuko duen diziplinako irakaslearekin, haren gaitasunetara ongien egokitzen den kurtsoan sar dezan.

9. artikulua

Instrumentua, ordutegia, taldea, etab. aldatzeko eskaerak bulegoan dagoen orri ofiziala beteta egin behar dira. Erregistratu egingo dira, eta zuzendariari helaraziko zaizkio.

10. artikulua

Libre dauden plaza, talde eta ordutegien arabera bideratuko dira aldaketa horiek, baldin eta eskaera behar bezala eta epe barruan egin bada (Matrikulazio-epeak. Ikasturtea aurkezteko eguna barne).

11. artikulua

Musika Mintzaira eta Hezkuntza Musikala irakasgaiak errepikatzen dituztenek ikasturte berrian sartuko diren ikasle ofizialen aurrean lortutako lehentasuna galduko dute, eta Eskolak egokien deritzon moduan banatuko dira.

12. artikulua

Lehenengo eskola-asteen erantzungo zaie aldaketa guztiei.

13. artikulua

Ikasleak ikasturtea hasi ondoren ematen badu baja, tasa osoa ordaindu beharko du. Ikasturtea hasi baino lehen ematen badu baja, ez zaio itzuliko matrikulari dagokion zenbatekoa, plaza gordetzeko balio duelako.

IV. KAPITULUA. ITXAROTE-ZERRENDEN KUDEAKETA

14. artikulua

- Izena eman bai baina plaza lortu **ez** duten pertsona guztiak itxarote-zerrenda batean sartuko dira, **sarbidea eta lehentasunak** izeneko kapitulari dagokion hautapen-prozesuko irizpideen arabera ezarritako ordenari jarraituz. Epez kanpo izena eman dutenekin osatuko da zerrenda hori, entrega-ordena kronologikoaren arabera.

- Sortzen diren plaza hutsak irizpide operatibo hauei jarraikiz beteko dira:

- Ikasle batek baja ematearen ondorioz eskaintzen den plazak hutsik geratzean zituen baldintza espezifikoak izango ditu, eta Eskolak ez du zertan aldaketarik egin, nahiz eta eskatzailearentzat plaza egokiena ez izan.

- Eskolak egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartu ahal izango ditu plaza guztiak ahalik eta bizkorren beteko direla bermatzeko, betiere, dagoen itxarote-zerrenda kontuan hartuta.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskola Kontseiluko presidenteari ahalmena ematen zaio araudi hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkotzat jotzen diren arau guztiak emateko.

Kasuan kasuko ikasturterako onartutako «Eskaintzaren prozedura» dokumentua araudi honen gainetik egongo da, ondorio guztietarako.